

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Paulen komentuaeren eta okupatzen duen orubearen eraikina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari doan behin betiko lagatzea onartzea, hezkuntza-erabilerarako

Udaleko Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 15ean egindako ohiko bilkuran, lege eskatutako gehiengoz, aho batez erabaki zuen hasierako onarpena ematea Zuiako Udalaren jabetzako ondare-ondasun hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari doan lagatzeko besterentzeari, hezkuntza-helburuetarako:

- Kokapena: 51. partzela, 2. poligonoa, Murgia, Domingo de Sautu kalea 69.
- Izaera: ondarea.
- Partzelaren azalera: hogeita hamalau mila ehun eta hirurogeita zazpi metro koadro (katastroa).
- Azalera eraikia: hamaika mila zortziehun eta hemeretzi metro koadro (katastroa).
- Mugak: iparraldean Domingo de Sautu kalea; hegoaldean Otxondo kalea, ekialdean ubidea eta mendebaldean 2. poligonoko 1157, 1160, 1161, 1162, 1163 eta 1164 partzelak.
- Hirigintzako kalifikazioa eta sailkapena: hirikoa, irakaskuntzako ekipamendu komunitarioa.

Hasierako onepenenaren erabakia jendaurrean jarri da 20 egunez, 2024ko otsailaren 28ko ALHAOean 25 zenbakidun argitalpenaren bitartez, eta ez da inolako alegaziorik aurkeztu. Beraz, erabaki hori behin betikoa da.

Denek jakin dezaten argitaratzen da.

Behin betiko onarpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, horren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46.1 artikuluekin bat etorritik, egoki iritzitako beste edozein gorabehera.

Murgia, 2024ko apirilaren 17a

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA